

Deba
ETORKIZUNA ORAIN



Martxoaren 25ean
zabalduko da
**Artzabalgo
hilerri berria**

LAN-BATZORDEA



2021eko martxoaren 25ean bozeramale batzordea hilerriaz hitz egiteko bildu zen. Ondoren sortuko zen Hilerriaren lan batzordearen aurrekaria izan zen.


La urtebete igaro da hilerriari lotutako gaiak lantzeko Bozeramale Batzorde bat ospatu genuenetik; hauxe izan zen egungo hilerriko lan batzordearen aurrekaria. Gilen Garcia alkateak, Aritz Larrañaga (EH Bildu), Pedro Bengoetxea (DA), Isidor Lamariano (DA) eta Miren Esnal (EAJ) zinegotziek, udal aparejadoreak, idazkaritzako teknikariak eta brigadako arduradunak osatzen dugu Lan Batzordea.

Gure helburua Artzabalgo hilerri berriko gora-behera tekniko, juridiko zein prozedurazkoak elkarrekin bideratzea izan da, eta lan horretan dihardugu. Lehen erronka hilerri berria irekitzeko pauso guztiak ematea izan da, eta bigarrena Amillagako hilerria itxi eta lekualdatze prozedura abiatzea izango da. Azpiegitura garrantzitsua da berez hilerria herriarentzat, eta jakitun gara herritarren sentimendu, sinesmen eta ohituretan eragin zuzena duela, horregatik egin dugu batera lan egiteko hautua.

Heldu da Artzabalgo hilerri berria zabaltzeko unea. Aldizkari honetan azpiegitura berria aurkeztu nahi dizuegu, informazioa eman, eta zuen iritzia ere jasotzeko bidea eskaini. Martxoaren 25ean zabaldu aurretik, herritarrek ikusi eta ezagutu dezazuen bisita gidatuak egingo ditugu, eta Lan Batzordeko kideok bertara joan zaitezten eta ekarpenak egin ditzazuen gonbidapena luzatzen dizuegu.



Berdintasuna oinarri duen espazioa



Artzabalen, zentral elektrikoaren eta Mendarora doan bide zaharraren gainean dagoen mendi mazelan kokatuta dagoen hilerria 2022. urteko martxoaren 25ean zabalduko da. Udalerrian aspaldi atzemandako behar bati erantzungo zaio horrekin. Hilerri berdea da, hilobi gehienak lur azpian eta soropilez estaliak daude, eta horrenbestez, parke baten itxura du.

2017ko urrian argitaratu zen Debaberri udal aldizkarian herritarrei azaldu zitzaenez, hainbat arrazoigatik hautatu zen kokaleku hau, esaterako, Debako herrigunetik hurbil dagoelako; bertaraino oinez joateko aukera dagoelako, espaloi berria egitea aurreikusita dago, eta hortaz, era seguruan egin ahal izango da bertarainoko ibilbidea. Gainera, orain arte Debak izan ez dituen zenbait zerbitzu barneratzen ditu, hala nola, beilatokiak eta agur egiteko ekitaldi-aretoa, eta ekitaldi horiek izaera zibila nahiz erlijio-izaera eduki ahal izatea.

Lurperatze-unitate guztiak berdinak izatea bilatzen da, batzuk besteen gainetik nabarmendu gabe, guztiak eredu, tamaina eta material berekoak izan daitezzen. Honela, pertsonen arteko berdintasuna sustatuko da espazio honetan ere.

Hilerri berriaren izaera gaur egungo beharrei erantzuteko hautatu zen. Proiektua idatzi aurretik egindako azterketaren arabera udalerrian hildakoen %70 errausten zen, eta joera hori urtez urte handitzen doa gure gizartean.

Luciano Pagaegi arkitektoak irabazi zuen lehiaketa, eta hark egindako proiektuan azaltzen duenez, “estetika edertasunaren esentzia eta pertzepzioa aztertzen dituen filosofiaren adartzat hartuta, artearen filosofiaren sinonimo gisa, arkitekturak balio erantsia eman behar dio eraikitako espazioari, esanahia emanez bizitzan hain iraunkorra den heriotzari”. Bitasun hori etengabe errepikatzen da Artzabalgo hilerri berrian: bizitza- heriotza, hasiera- amaiera, barnealdea- kanpoaldea, tektonikoa- aureoa, lurterra- espirituala, ukigarria-ukiezina.

Eta dio: *“Xalotasuna da bilatzen den funtsezko puntu bat, umiltasun gisa ulertuta, gizakiaren apaltasuna heriotzaren aurrean, bizitzaren aurrean ezinbestean umiltasuna ekarri behar duena. Azkenean 'izarren hautsa' besterik ez baikara.”*

Debako hilerriko proiektu-ibilbidearen konposizioa 3 ilargitan oinarritzen da: amalurra, ilargi andrea eta eguzki amandrea adierazten diren hiru indar femeninotan. Ilargia euskal gerra-estandarteetan ere erabiltzen zen, erromatarren garaiaren aurretik. Ilargi-faseak sarrerako atean bertan jasotzen dira. Azken hatsaren testigua hiru ilargi betetan.

Hilerria zabaltea

Martxoaren 25ean, ostirala,
12:00etan zabalduko da Artzabalgo hilerri berria.

Aurretik, hilerria bertatik bertara bisitatzeko aukera egongo da. Bisita gidatuak egingo dira gida batekin.

• **Martxoak 17, osteguna**
18:00etan. Euskaraz.

• **Martxoak 18, ostirala**
11:00etan. Euskaraz.
18:00etan. Gaztelaniaz.

• **Martxoak 19, larunbata**
11:00etan. Gaztelaniaz.

Martxoaren 16a baino lehen (hau barne) info@deba.eus helbidera idatzita edota **943 19 28 40** telefonora deituta egin beharko da.

EZAUGARRIAK



Debako hilerri berrian hilobi mota hauek daude

BANAKAKO NITXOAK, HORMAN JARRITAKOAK

Horman jarritako banakako 54 nitxo daude, 6 modulutan banatuta, eta 9 nitxo modulu bakoitzeko.

LUR AZPIKO NITXOAK

Lur azpiko 30 nitxo: 5 modulu, 6 nitxo modulu bakoitzeko.

ERRAUTSAK GORDETZEKO LURPERATUTAKO KOLUNBARIOAK

972 errauts kutxarako espazioa dago lurperatutako kolunbarioetan: 54 modulu, 18 unitateko edukiera moduluko.

ERRAUTSEN PARKEA

“Izate bat denboran. Herri bat espazioan. Aldiune etengabe bat. Hutsune bat argira.” dio gure senitarteko eta lagunaren omenez jarritako eskulturako idatziak.

HEZURTEGIA

Artzabalgo hilerri berrian hilobi mota ezberdinak aurki ditzakegu. Alde batetik hil kutxak sartzeko nitxoak daude, eta bestetik, errautsak gordetzeko kolunbarioak.

Nitxoei dagokienez, bi motatakoak daude, horman jarritako banakako nitxoak eta lur azpiko nitxoak. Horman jarritakoak 6 modulutan banatuta daude, eta modulu bakoitzean 9 nitxo jartzeko tokia dago. Lur azpikoak berriz, 6 modulutan banatuta daude. Horietatik 5 nitxoak sartzeko erabiliko dira, eta bakoitzean 6 sartzeko aukera dago. Seigarren modulua, ordea, hezurtegia izango da.

Errautsak gordetzeko, bi aukera daude: errauts kutxak gordetzeko **kolunbarioak edo errautsen parkea**. Kolunbarioak lurperatuta daude eta 54 dira. Kolunbario bakoitzean 18 errauts kutxa sar daitezke. Kutxa bakoitzak neurri zehatza izan behar du: 20 cm.-ko diametroa eta 25cm.-ko altuera. Aukera dago halaber, erlikiak jarri ahal izateko, betiere erlikiaren bolumenaren baturak errauts ontzi baterako espazioa gainditzen ez badute.

Egonaldiaren epea bost urtekoa izango da, bai hil kutxen kasuan eta baita errauts kutxen kasuan ere. Behin epea igarota eta betiere, espazio premien arabera, hilobiko egonaldia luzatu ahal izango da urtez urte. Egonaldiaren epea igaro ondoren senitartekoei eskatzen ez dituzten gorpuzkinak edo errautsak hezurtegian edo errautsen parkean jasoko dira.



BANAKAKO NITXOAK, HORMAN JARRITAKOAK



LUR AZPIKO NITXOAK



LURPERATUTAKO KOLUNBARIOAK



ERRAUTSEN PARKEA



HEZURTEGIA



HARRERA

Aretoak baita ere

Berrikuntzarik nagusia, hilerri berriak eskaintzen dituen guneak dira. Izan ere, hilobiak izateaz gain, aretoak ere baditu hilerri berriak. Alde batetik, hiletak egiteko ekitaldi aretoa, eta bestetik bi beilatoki.

EKITALDI ARETOA

Agur aretoa izango da eta berau erabiltzeko eskaera edozein pertsonak egin ahal izango du, baita ehorzte enpresek ere.

Aretoan dauden argizuloak, koloretako beira zeharargiak, Debako eliza gotikoarekin lotura egiteko sortutakoak dira. Argiaren eta kolorearen intentsitate-kadentzia bat gertatzen da egunean zehar espazio bakar eta hutsean. Debako herritarrak haien arbasoen oroitzapen eta omenaldi etengabea egitera garamatza. Erdi Aroan Deban bizi, maitatu eta hil zirenak, eta orain denbora berean biziko diranak beren ondorengoekin.

Ekitaldi aretoko 3 forma kurboko hormaren oinplanoa aprobetxatuz, behatzaren hiru forma kurboko hiru zatiak irudikatzen da. Azken hatsan, gizakiak bere ondorengoekin edo pertsona maiteekin duen kontaktua gogoraraziz.

BEILATOKIAK

Bi beilatoki daude, eta hauen erabilera, ehorzte enpresek eskatu ahal izango dute soilik. Orain arte Deban ez da halakorik egon, eta helburu nagusia hildakoen senide zein hurbilekoei baldintza duinak ematea da, gorpua baldintza higieniko eta sanitario egokietan lurperatu, erraustu edo lekualdatu bitartean.

“Arima badoa, hutsunea eraldatzen da estatikoa, mugimendua erdian, unea” dio hormetan.

Kanpo espazioak

ESKULTURAK

Babestutako ondare izendatuta daude Amillagako hilerri zaharreko hiru panteoi: Salegui, Andonegui-Querejeta eta Lersundi. Debako Udalaren arau subsidiarioen arabera, eskultura-izaera eta interes arkitektoniko handia dutenez, Artzabalera lekualdatuko dira.




HUTSIK DAGOEN ESPAZIOA

Gune hau hasiera batean Amillagako hilerrian ondare izendatutako panteoiak jartzeko tokia bazen ere, libre geratuko da, eskultura horiek aurreko puntuan aipatutako gunean jarriko direlako. Espazio hau zertara bideratu herritarrei galdetuko zaie argitalpen honetan jasotzen den galdetegian.

PALEO IBAI-TERRAZA


Lur-erazketa orokorrean egindako indusketetan, nitxoan parean, ibai-terrazta izenekoa aurkitu zen, interes geologiko handiko elementua hain zuzen. 40 metrora dago, eta argi eta garbi zehazten du errekarriak lerrotatuta daudela. Azterketa horri esker, Deba ibaiaren ahokadura berreraiki ahal izango da, eta, horrela, Haranaren bilakaera ulertzen eta datatzen lagunduko du, Euskal Kostaldeko Geoparkeak Karstean eta marea-zabalgunean egin dituen ikerketekin batera. Paleoterrazetan zintzilikatutako paleo-mota hori ez da oso ohikoa kantauriar isurialdean; normalean hegalean higadura-prozesuek erabat suntsitzen baitituzte.



BIDRIERAK



BEILATOKIA



HUTSIK DAGOEN ESPAZIOA



PALEO IBAI TERRAZA

ERABILERRAKO IRIZPIDEAK

Hilerriko zerbitzuak erabiltzeko Udalak horretarako duen eskabide eredu bat beharko da. Eskabidea biztanleentzako arreta zerbitzuan edo itxita balego Udaltzaingoaren bulegoan aurkeztu beharko da ospakizuna egin baino 24 ordu lehenago gutxienez, lanegunetan. Egun eta leku bera erabiltzeko eskaera bat baino gehiago aurkezten badira, hurrenkera izango da baimena emateko irizpidea. Aretoen atontze edota zerbitzu osagarrien arduraren erabilera eskatzen duenari dagokio, eta aretoak aurkitutako egoera berean utzi beharko ditu.

Eskabidea bideratzen duen pertsona fisikoari edota juridikoari dagokio udal ordenantza fiskaletan ezarritako tasa/k ordaintzea.

TASAK

Ehorzketak nitxoan:


Lur azpian	363 €
Horman	313 €
Ehorzketak kolunbarioan	104 €
Ehorzketak hobi komunean edota errautsen parkean	70 €

Nitxoko hobitik ateratzea:

Lurrazpian	173 €
Horman	123 €
Kolunbarioko hobitik ateratzea	82 €
5 urte ehortzita daudenak urteroko luzapena	15 €

Beilatokiaren erabilera

eguneko	400 €
Ekitaldi aretoaren erabilera	150 €



LEKUALDATZEA:

Urriaren 19ko 202/2004 DEKRETUaren Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duenaren arabera egingo da lekualdatzea.

50. artikulua: Hilotz-hondarrak batu eta lekuz aldatzeko prozedura. 2.– *Hilerrria ixten bada, haren arduraren erabilera duen entitateak jendeari jakinarazi beharko dio eze, hilotz-hondarrak batu egingo direla, jakinarazi ere hiru hilabeteko aurrerapenaz eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Autonomia Erkidegoan zabalkunde handiena duten egunkarietan egindako argitalpenaren bitartez; betiere, ehortzitako familiakoek euren eskubideekin bat datozen neurriak hartu ahal ditzaten. Batutako hilotz-hondarrak erraustu, hezurtegi batera eraman edo beste hilerrri baten ehortziko dira.*

48. artikulua.– Hilerrriak ixteko baimena.

1.– *Hilerrri bat ixtea baimentzeko eskuduna Osasun Saila da, eta, halaber, hilerrrian diren hondar guztiak edo batzuk banatu eta lekuz aldatzea baimentzeko ere. Hilerrriaren arduraren erabilera duen entitateak Osasun Sailari eskatu beharko dio hilerrriko hondarrak lekuz aldatzeko eta ixteko baimena, betiere, arrazoitutako idazkiaren bitartez, zeinari hilerrrian diren ehorzketen antzinatasunaren akreditazioa erantsiko zaion.*

2.– *Behin erregelamendu honetan ezarritako betekizunak konplitu direla egiaztatu ondoren, Osasun Sailak baimendu egingo du hilerrrian diren hondarrak itxi, batu eta lekuaz aldatzea, betiere, indarreango legeria aplikatuaz eska daitezkeen beste baimen batzuk bazter utzi gabe.*

Horren harira, hasiera batean aurreikusten zen aukera malgutzearen alde egin du hilerrriko lan-batzordeak. Izan ere, hasieran Amillagako hilerritik hilerrri berrira lekualdatzeko aukera bakarria aurreikusten zen, erraustu eta errautsen parkera eramatea, hain zuzen ere.

Hilerrriko lan-batzordeak, ordea, gaia aztertuta, beste aukera hauek adostu ditu:

- Denek izango dute hilerrri berrira lekualdatzeko aukera, erraustuta eta errautsen parkean.
- 15 urte baino gutxiagoko hildakoei errauts kutxetan kolunbarioetan sartzeko aukera izango dute.
- Bi urte baino gutxiagoko hildakoei (dolu garaian daudenei) hilkutxan leku aldatzeko aukera izango dute (betiere osasun eta higie baldintzak betetzen badira).

Iraileko lan taldean aho batez erabakitzen dira lekualdatzeari dagozkion kostuak noren kontu izango diren:

derrigorrez erraustea ezinbestekoa denez, erraustearen kostua Hitzarmen Batzarrak hartuko du bere gain, senitartekoei beste nonbaitera eramatea erabakita ere.

Artzabalgo hilerrira pasa nahi dutenek, hobi komunera bada ez dute ezer ordaindu beharko, aldiz, kolunbarioetara lekualdatuta, 70 €kok tasa kobratuko zaie. Tasa horren ordainketak Artzabalgo hilerrrian bost urte egoteko aukera emango die.

Amillagako hilerrrian erraustuta daudenei eta hilerrri berrira pasa nahi dutenek, eta errauts kutxa handiegia badute, errauts kutxa berriaren kostua Hitzarmen Batzarrak hartuko du bere gain.

Bi urte baino gutxiago hilda daudenen artean, nitxoan lekualdatzeko aukera badago, hori doakoa izango da familiarentzat.

Ehorzketak hurrenkerearen arabera egingo dira, banan-banan, kolunbarioetan errauts kutxen tamaina bereko erlikario bateratua jartzeko aukera hautatzen denean izan ezik.

Zure iritzia entzun nahi dugu

Aldizkari honetan hilerriari eta hari lotutako hainbat gairen inguruko galdetegi atxiki dugu, esaterako, azpiegituren, bertan ezarri nahi den filosofiaren, lekualdaketarako irizpideen... inguruan duzun iritzia jasotzeko, Udalak uste baitu herritarrek entzunez eta elkarlanean beti dagoela gauzak hobetzeko aukera, arautegiak eta espazioaren mugak aintzat hartu behar badira ere. Galdetegi hauek bisita gidatuak egin ondoren hilerrian bertan jasoko dira, edota udaletxeko harreran martxoaren 31ra arteko epean. Digitalki betetzeko aukera ere izango da, helbide honetan: <https://labur.eus/ArtzabalgoHilerriaDeba>.



Jasotzen diren ekarpenak hilerriko lan-batzordeak aztertuko ditu, eta ondoren, emaitzak partekatze bilerarako deialdia egingo du. Parte har dezazun eskatu nahi dizugu, guztion iritzia garrantzitsua baita. Une honetan gaiak zuzenean eragiten ez badizu ere, zure iritzia ere jaso nahi genuke, guztiok izaten baititugu momentu batean edo bestean agurtu behar ditugun pertsonak, eta hortaz, haiei agurra egiteko modua herri mailako kontua da. Eskerrik asko alde zuzenetik.

LEGE OHARRA: Datuen babesari buruzko araudia betetzeko, jakinarazten dizugu zuk emandako datuen tratamendua Debako Udalaren erantzukizuna izango dela, udal hilerriko zerbitzuen kudeaketarako, eta, informazioa hirugarrenei ez emateko edo ez jakinarazteko konpromisoa hartzen duela. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, eteteko edo ezabatze eskubideak erabil ditzakezu dbo-dpf@deba.eus bidez.

Izen-abizenak:

Telefonia: E-posta:

Bisita gidatua egin duzu? Bai Ez

Zer gustatu zaizu gehien/gutxien?

Zerbaiten falta sumatu duzu? Zer hobetuko zenuke?

Egondien epea murrizta dela iruditzen zait Hilketxentzako toki gutxi dago

Besterik?

Hilketxen erabilera geroz eta baxuagoa denez, hauen edukiera txikitu egin dugu hilerri berrian. Etorkizunera begira herritarren interesa zein den ezagutze-aldera, zu eta zure inguruan hilketxen erabilera edo errautsena lehenetsiko dela esango zenuke?

Hilketxak Errautsak Ez dakit / Ez dut erantzun nahi

Ekarpenak:

Orain arte, hilerrietan, familien-arteko bereizketa ematen zen kokapenari eta gorpuzkin/errautsen gordeleku-motari dagokionez (panteoiak, kapilako hezurtegi edo kolunbarioak, hilerriko erdiguneetan kokatzea...). Hilerri berrian, ordea, herritarren arteko baliokidetasuna ezarri nahi denez ez zaio aipatutakoei lekua emango. Zer iruditzen zaizu erabakia?

Egokia Desegokia Ez dakit / Ez dut erantzun nahi

Ekarpenak:

Horretaz gain, hilerri berrian ez da egongo senideen gorpuzkinak modu bateratuan biltzeko aukerarik. Hau da, iristen diren gorpuzkin eta errauts-kutxak hurrenkeraren arabera kokatuko dira libre dauden espazioetan (salbuespen bakarra, errautsen kasuan erlikario bateratua jartzea da). Zer iruditzen zaizu hartutako erabakia?

Egokia Desegokia Ez dakit / Ez dut erantzun nahi

Ekarpenak:

Leku-aldaketari dagokionez, ezarri diren aukerak nahikoak iruditzen zaizkizu?

Bai, nahikoa iruditzen zait Ez, ez zait nahikoa iruditzen Ez dakit / Ez dut erantzun nahi

Ekarpenak:

Hilerri berria eraikitze prozedurari dagokionez, zer da faltan bota duzuna eta zer hobetuko zenuke?

.....

.....

Hilerrian bada hutsik dagoen espazio bat (ikus planoan 8. zenbakidun espazioa). Zertara bideratuko zenuke?

Amillagako hilerria oroitazteko txokoa egiteko.
 Kolunbarioak jartzeko.
 Hilketxa gehiagorentzako lekua egiteko.
 Ez dakit / Ez dut erantzun nahi

Besterik?

Baduzu beste aipurik?

.....

Eskerrik asko zure iritzia emateagatik.

Hilerriko planoak

- 1 Ekitaldietarako aretoa
- 2 Komuna
- 3 Beilatokiak
- 4 Harrera
- 5 Eraikineraren sarrera nagusia
- 6 Paretako nitxoak
- 7 Paleo ibai-terraza
- 8 Espazio hutsa
- 9 Lur azpikoko nitxoak
- 10 Hezurtegia
- 11 Errautsen parkea
- 12 Sarrera nagusia
- 13 Kolunbarioak
- 14 Amillagako eskulturak

